

## OIARTZUNGO INAUTERIAK GAUR EGUN

(Pello Añorga. Inauteriak berreskuratzeko taldekoa)

**Oiartzunen, inguruko hainbat herritan bezala, Frankoren diktadurarekin batera itzali ziren inauteriak. Zorionez, Oiartzunen sortu genuen taldeari esker (Inauteriak berreskuratzeko taldea) piztu genituen berriro 1989. urtean. Eta ez edozein modutan! Hasieratik bertatik ikusten baikenuen, Donostian eta antzeko hirietan egiten ziren desfile ikusgarrietatik urrun, beste era batera txertatu behar genituela herrian. Esaterako: dantzak zaindu behar genituela, musika tresnak, jantziak, pertsonak, auzoak, ideologiak, euskal kultura, eta abar.**

Horretaz gainera, dokumentazio lana egin behar genuela, zaharrak kontsultatu, testigantzak bildu... Pentsatu eta egin: berreskuratzea lortu genituen; berreskuratu ez ezik baita eraberritu ere.

Zer berreskuratu dugu? Bada, gerra aurrean egiten zen "Arrautz iyotea" (kuestazioa). Koadrilak bildu, eta auzoz auzo (dela trikitiarekin, panderoarekin, edota dela akordeoiarekin) dantza egitea (nor-

malean fandangoa eta arinarina). Etxe bakoitzean atea jo, dantza egin, eta "puskak" bildu, umore ederrean: txorizo muturrak, oilaskoak, in-txaurrak, hurrak, txanponak, eta abarrak. Horretarako, egun aukeratua larunbata goiza. Garai batean oinez ibiltzen omen ziren koadrilak, baina gaur egun jeneralean autoz.

Hori bai, denak jantzita joaten gara: neskak pospolinez, eta

mutilak zuriz (alkandora, galtza zein alpargata zuriz, txapela gorriz, eta horrela). Hori da mozorroa. Gero, bazkaltzeko tenorean, auzo guztietako koadrilak bildu, eta egundoko bazkaria egiten dugu. Dantzak, abestiak eta bertsoak ez dira faltako.

Eta zer berri dugu? Bada, larunbata eta igande arratsaldetan egiten zen mozorro-festa. Badirudi, gerra aurrean, jendea mozorrotua ateratzen zela Oiartzungo plazan, nor bere gisa, gaur egun Tolosan ateratzen diren modura; txistulariek euren piezak jotzen zituzten, eta bukatuko zuten amezkilarekin batera. (Garai batean, eliza medio, debekatua baitzegoen dantza egitea gauez, eta, normalean, amezkilarekin batera erretiratzen omen zen jendea). Eta, guk hori, jakina, zeharo aldatu dugu.

Beste aldetik, sartu dugu pertsonaia berria, hots, IN-

TXIXUA\*, Oiartzungo pertsonaia mitologikoa. Funtsean, hiru arrazoi izan genituen auke-ratzeko: Lehena, oiartzuartan izaera; Oiartzunen bakarrik baitago kokatuta, ez beste inon. Bigarrena: zibilizatu gabea izatea, hau da gauekoa, basatia, animalia, mendi barrukoa... iruditu zitzaigun oso mozorro aproposa izan zitekeela alderdi erreprimitu horiek bizitzeko, urtean behin gutxienez. Eta hirugarrena: naturarekin konexio zuzena duenez,



"Arrautz iyotean", larunbatean

udaberriaren izpiritua sinbolizatzeko ere balio zezakeela. Eta halaxe hornitu genituen, zein baino zein larruz jantziago, buru handi adardunekin, kakoak daramatzatela eskuetan, dinbili eta danbala, balantzaka eta oihuka, orroka hemen eta orroka han, zirriki eta zirriki, sorginen konpainian ... Eta, hain juxtu, zirriki nola aritzen diren, bada, halako izenak hartu dituzte: Zirri-mirri, Zirri latz, Zirri handi, Zirri potro, eta abar. Auzo hainbeste Intxixu dira, denera zortzi: Elizalde, Arragu, Ugaldetxo, Iturriotz, Altzibar, Karrika, Ergoien eta Gurutze.



Behin ilunduz gero, suargiak hartu, eta Arrietako ur depositutik barrena abiatzen dira Intxixuak, Zaharren egoitzan zehar. Jaitsi eta Oiartzungo plaza hartzen dute. Sua piztu, udaletxeko balkoira igo, moztro-bandera eskegi zortzi painelurekin, eta festa eskaini: herriko txistulariak lagun, perkusio joleak, dantzariak, eta abarrak, egundo afaria eginez denon gozamenerako. Zoritzarrez, bihar-munean, igande ilunean, plazatik alde egin behar izaten dute (hil gabe) sorginekin batera Oiartzungo meategietara, zibilizazio "txit perrua" agertzen zaielako. Hori bai, joan aurretik, Oiartzungo herriak himnoa eskaintzen die: "Oiartzun gogor erantzun".

Eta hala, Intxixuekin batera, eraberritu genituen jantziak (zaku jantziak), eta musika tresnak (Perkusioa, txistua, alboka, txalaparta...), eta dantzak: Azeri dantza, Sorgin dantza, Arratiako arin arina (Sorginek dantzatzeko, albokariak lagunduta), Zazpi jauzi, Petiri dantza (Satan dantza), Lantzeko zortzikoa, Luzaideko Bolant dantza (Xoxo dantza), Fandangoa, Arin-arina, Kalejira eta Oiartzungo "lyote baltsa". Oiartzungo "lyote baltsa", bai, Jose Mendizabal "Txistu" zenari esker berreskuratu genuena, garai batean Oiartzunen dantzatzen zena, eta gaur egun dantzatzen dutena Intxixuek sorginekin batera.

## INTXIXUA

"Intxixua" Oiartzunen kokatuta dagoen genua da, ia-ia jentila, eta batzuen arabera, sorginaren gizona. Izan ere, gauetan ateratzen omen zen, Arditurriko zuloetatik, Aiako Harrian dauden meategietan (minetan) barrena. Horregatik, ez da batere harritzekoa, gau ilunetan batik bat, soinu estrainuren bat gertatuz gero etxearen kanpoko aldean, edota txakurraren zaunkadak adituz gero, esatea jendeak: "Hara, gaur ere Intxixua atera duk kanpora!". Dena den, oso zaila omen zen ikustea "Intxixua", ia ezinezkoa. Alde batetik, arrunt betizua zelako, esan nahi da zeharo basatia; eta, beste aldetik, lotsati amorratua. Ordea, esaten dute zaharrek, orain dela denbora dezente, Oiartzungo mendiko guarda batek aurkitu zuela "Intxixu" bat Arditurriko zuloetan, eta zera, parte eman zuela Udaletxera. Betizuren tankerako pertsona arraro estrainu bat omen zen!

Esanak esan, ba da Oiartzunen, beste ustea, aski zabaldua dagoena: harrespilak (kronletxak) egiten zituztenarena. Eta zertarako egiten zituzten? Bada, bertan lurperatuak ahal izateko (hilobiratuak). Eta Oiartzunen ezin dugu ahaztu, badagoela makina bat harrespil edo mairubaratz Oialekun, Egiarren, Errengan, eta hainbat lekutan. Sinismenaren arabera, hauetan denetan omen daude lurperatuak "Intxixuak"!

# KONTZERTUAK HM Txokoan

## Udaberriko kontzertua

2006ko apirilaren 8an - arratsaldeko 6,30tan - HM Txokoan

### JON BERGARETXE

(Oartzun)

#### **OIARTZUNGO KANTU ZAHARRAK**

Jon Oñatibiarekin Lartaun abesbatzan kantatzen hasi zen 1978 inguruan eta gitarra Oiartzungo Jesus Mari Nuñezekin ikasi zuen.

Kantagintzan 1983 inguruan hasi zen eta bi edo hiru musika euskal taldeetan abeslari eta gitarra jole aritu ondoren Azala euskal folk taldean sartu zen. Talde honetan 1986tik 1988ra abeslari eta gitarra jotzen aritu zen. Talde honekin "Zaldiko maldiko" diskoa egin zuen (Elkar; ELK 150; 1987) eta urte horietan kontzertu asko ekeini zuten Euskal Herrian eta kanpoan: Madril, Guadalajara, Alemanian, Paris, ...

1989an bakarlari gisa hasi zen eta urte hartan Euskal Herriko Kantu Txapelketa irabazi zuen, bere ahotsa eta gitarrarekin Tresnaz lagundurik bakarlariaren arloan. Finala Zuberoko Iruri herrian ospatu zen eta saio horrekin diskoa argitaratu zen (Etxahun Iruriren herrian ekainaren 25ean; Euskal Kantu Xapelketa)

Horren ondoren izena eta ospea lorturik, kantaldiak asko eman zituen beti ahots eta gitarrarekin bakarlari moduan. Segidan Elkar diskoetxeak disko bat grabatzeko eskaera egin zion eta 1990an "Gaur ere goizegi" izenburuko LPa egin zuen (Elkar; 229).

Ondoren bakarlari gisa baina bere taldearekin kontzertu asko eskeini zuen bereziki Euskal Herrian.

1992. urtean KILOMETROAK 92ko edizioako kantuan parte hartu zuen musikagile eta abeslari moduan. Hau IZ diskoetxean grabatu zen.

1998an "Oiartzungo Kantu Zaharrak" kontzertuan eta zuzeneko diskoan parte hartu zuen Juan Mari Lekuona, Julen Lekuona, Antton Valverde, Jon Txurio, Alaitz eta Maider,

Lartaun Abesbatza eta beste musikari eta abeslari oiartzuarrekin (Elkarlanean; KD 505)

#### **KONTZERTUA**

Besteak beste Oiartzungo herri kulturegiko diren honako kantuek eskeiniko ditu:

**Elorri xuriaren azpian**

**Arboletan den ederrena da oihan  
beltzian pagoa**

**Nere maitia jeiki ta jeiki**

**Joxe Bentura**

**Maitia nahi badezu**

**Kaskazuri bere buruari**

**Nere sentimentuak**

**Añarbe (Xanti Iparragirre)**

Eta euskal kantutegikoa diren beste hauek:

**Goizian goiz jeikirik**

**Amerikara noa ( P.M. Otaño)**

**Mantxako artzaia (Jon Bergaretxe)**



# DULZAINEROS DEL BAJO ARAGON BARUCAS D'AGÜERRO



## Programa:

Talde hau 1987an sortu zen, hiru arlo landuz: ikerketa, diskoen grabaketa eta bereziki musika interpretazioa. Beraien hasierako helburua gaiteroaren figura berrindartzea zen, baina berehala kontzertu didaktikoak eskeintzera behartuta aurkitu ziren, horretarako, Aragoiko soinu-tresna tradizionalak erabiliz. Hauek tresna zaharren kopiak dira eta errepertorioa eta interprezio erak ere zaharregandik ikasiak dira. "Quienta Borina" eta "Baruca d'Agüerro" beren diskoetan Aragoiko musika tradizionalaren errepasso zabala ematen dute.

Talde honek ehundaka emanaldi eskeini ditu bere ibilbidean, musika jaialdi garrantzitsuenetan.

Kontzertu hau BARUCAS D'AGÜERRO bere diskoan oinarrituko da bereziki. Bere osagai nagusiak, musikari berriak, soinu-tresna zahar-berriak, perkusioak eta ahotsa berrindartuak beste sustraidun musiketara irekiera, armonia berriak eta musikarien heldutasuna. Guzti horrekin landuko dira polkak, pasodobleak, baltsak, "pericones", martxak, "mayos", erromantzeak, Aste Santuko joaldiak, ... kantu eta soinu-tresna tradizionalekin. Garrantzitsua da musika eta berak esnarazten dituen sentimenduak, bai eta musikariek ondo egitea ere.

- 1.-Armas, armas.
- 2.-Albaes
- 3.-Pericón
- 4.-Danzas d'a Iglesiasuela.
- 5.-Bailaba la Gitana.
- 6.-Mayo..
- 7.-Pasodobles d'antís más.
- 8.-Aragüés.
- 9.-En o trallo d'o ciprés.
- 10.-El cuadro.
- 11.-Jota d'a bispra.
- 12.-Tarirán.
- 13.-Tochos ta la plebia

Udaberriko kontzertua HM Txokoan

## AFARIA KONTZERTU ONDOREN

Orain arte bezala, afaria antolatu dugu Auzokalte elkartearen (Herri Musikaren Txokoaren ondoan) musikariek ere egon, jan, kantatu, jo eta dantzatzeko. Izen emateko komeni da lehen bait lehen deitzea, lekua murrizta baita. Prezioa: 15 euro.



**kontzertu honen  
laguntzaileak:**



## **BISITARI KOPURUA**

Urtarrila: bisitari kopurua: 258

Antolatutako taldeak: 11

Otsaila: bisitari kopurua: 240

Antolatutako taldeak: 12

*Bisitari kopurua martxora arte: 10.853*

## HERRI MUSIKAREN TXOKOA

Tornola kalea, 6 - 20 180 OIARTZUN

Tel / Fax (9) 43 49 35 78

[herrimusika@herrimusika.org](mailto:herrimusika@herrimusika.org) // [www.herrimusika.org](http://www.herrimusika.org)



olartzungo  
udala